

GOBERNU BATZARRA

2017 09 18

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren 18an, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea.
Beh. Beh. Idazkaria:	2.- Bizibiziki, S.L., eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena.
Karmele Contreras Goikoetxea	3.- Landa Auzoak- 2017ko dirulaguntza Artubi Auzo elkarteari.
Kontuhartzaitza:	4.- “Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren 1. ziurtagiria (792/17/CMSL eta 793/CMSL fakturak).
Ainhoa Molinos Zubiaurre	5.- “Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren 2. ziurtagiria (901/17/CMSL eta 902/CMSL fakturak).
	6.- “Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren 3. ziurtagiria (1065/17/CMSL eta 1066/CMSL fakturak).
	7.- Berazubi auzoko lokalaren erabilera.
	8.- 48/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko irailaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Bizibiziki, S.L., eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena.

Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 20an, Bizibiziki, S.L. eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena sinatzea erabaki zuen Aktibatu 2017 (Natur Turismo aktiboa) jardunaldiak diruz laguntzeko.

Bizibiziki, S.L.k 2017ko maiatzaren 24an Aktibatu Jardunaldien likidazioa aurkeztu du eta ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:

Urteko ekintzen memoria.

Gastu eta diru sarreraren likidazioa.

Fakturak.

Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

Jardunaldiak aurkeztutako memorian aurreikusita zeuden moduan garatu dira eta jardunaldien balorazioa positiboa izan da. Hitzarmenean eskatzen zitzaizkien eginkizunak eta dokumentazioa egoki aurkeztu dute.

200€ko gastu bat ezin izan dute faktura batekin justifikatu, baina honek ez du eraginik, eman beharreko diru-laguntzan (6.000€). Hitzarmenean ezartzen da, kopuru hori emango zaiela, irabazi guztiak (diru-laguntzak barne) gastuak gainditzen ez badituzte.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta Tolosako udaleko Dirulaguntzen Ordenantza orokorran ezartzen dena betetzen dela ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena. Bibi-Biziki, S.L , enpresari 6000€ko dirulaguntza ematea.

Bigarrena. Erabakiaren honen berri, enpresari, Kontu-hartzaitzari eta Ingurumen sailari ematea.

3.- Landa Auzoak- 2017ko dirulaguntza Artubi Auzo elkarteari.

Tolosako Udalak eta Bedaio auzoko Artubi auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2017ko maiatzaren 12an, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko.

Honen baitan, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2017ko Udal aurrekontuetan.

1100 481.0117200 Bedaio 6.000 euro

Artubi auzo Elkarteak, 2017ko abuztuaren 22an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2017ko ekintzak
- 2017ko ekintzen aurrekontua
- Gizarte segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak.

Ikusita, aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela, udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa eta aipatutako hitzarmenean jasotakoa betetzen dela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI D U

Lehena.- Artubi elkarteari diru-laguntza onartzea gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako: Zenbatekoa, 6.000 €.

Bigarrena.- Dirulaguntzaren %50 aurreratzea.

Hirugarrena.- Dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Fakturak
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

4.- "Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 1. ziurtagiria (792/17/CMSL eta 793/CMSL fakturak).

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitu zion "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain obrako 1. ziurtagiria aurkeztu dute.

<i>Ziurtagiri zenbakia.....</i>	<i>Faktura zenbakia.....</i>	<i>Zenbatekoa</i>
1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	792/17/CMSL.....	41.943,82 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	793/17/CMSL.....	5.948,06 €
	GUZTIRA.....	47.891,88 €

Kopuru horretan honako kontzeptuak sartuak daude, Gipuzkoako Urak enpresari dagozkionak (793/17/CMSL faktura).

- Ur zikinak eta ur-hornidura.....5.948,06 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- "Nafarroa etorbideko Irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 1. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 47.891,88 € -koa

Bigarrena.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri horri dagozkion 5.948,06 €-tako ordainketa eskatzea Gipuzkoa Urak enpresari.

Hirugarrena- Fakturen ordainketa egitea.

Laugarrena- Erabaki honen berri ematea Construcciones Moyua, S.L. enpresari; Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

5.- "Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 2. ziurtagiria (901/17/CMSL eta 902/CMSL fakturak).

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L., enpresari esleitu zion "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
1. ziurtagiria (%21ko BEZa)	792/17/CMSL	41.943,82 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe)	793/17/CMSL	5.948,06 €
	GUZTIRA	47.891,88 €

Orain obrako 2. ziurtagiria aurkeztu da honakoa da:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
2. ziurtagiria (%21ko BEZa)	901/17/CMSL	58.423,39 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe)	902/17/CMSL	12.273,36 €
	GUZTIRA	70.696,75 €

Kopuru horretan honako kontzeptuak sartuak daude, Gipuzkoako Urak enpresari eta

Tolargiri dagozkionak (902/17/CMSL faktura):

Urzikinak eta ur-hornidura	7.371,03 €
Argindarra	4.902,33 €

Ziurtagiria hau aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- "Nafarroa etorbideko Irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 2. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 70.696,75 € -koa

Bigarrena.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honetan sartuak dauden ondorengo kopuruak eskatzea dagozkien enpresei.

Ur zikinak eta ur-hornidura (Gipuzkoako Urak)	7.371,03 €
Argindarra (Tolargi)	4.902,33 €

Hiruqarrena- Fakturen ordainketa egitea.

Lauqarrena- Erabaki honen berri ematea Construcciones Moyua, S.L. enpresari; Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

6.- "Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 3. ziurtagiria (1065/17/CMSL eta 1066/CMSL fakturak).

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitu zion "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dirá, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
1. ziurtagiria (%21ko BEZa)	792/17/CMSL	41.943,82 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe)	793/17/CMSL	5.948,06 €
2. ziurtagiria (%21ko BEZa)	901/17/CMSL	58.423,39 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe)	902/17/CMSL	12.273,36 €
GUZTIRA		118.588,63 €

Orain obrako 3. ziurtagiria aurkeztu da, honakoa da:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
3. ziurtagiria (%21ko BEZa)	1065/17/CMSL	116.629,34 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe)	1066/17/CMSL	18.318,82 €
GUZTIRA		134.948,16 €

Kopuru horretan honako kontzeptuak sartuak daude, Gipuzkoako Urak enpresari eta Tolargiri dagozkionak (1066/17/CMSL faktura):

Ur zikinak eta ur-hornidura ...	14.756,54 €
• Argindarra	3.562,28 €

Ziurtagiria hau aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- "Nafarroa etorbideko Irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 3. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 134.948,16 € -koa.

Bigarrena.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honetan sartuak dauden ondorengo kopuruak eskatzea dagozkien enpresei.

. Ur zikinak eta ur-hornidura (Gipuzkoako Urak).....	14.756,54 €
. Argindarra (Tolargi).....	3.562,28 €

Hirugarrena.- Fakturen ordainketa egitea.

Laugarrena.- Erabakia honen berri ematea adjudikaziodunari, Construcciones Moyua, S.L. enpresari, Gipuzkoako Urak eta Tolargi enpreseei eta Kontuhartzaitzari.

7.- Berazubi auzoko lokalaren erabilera.

Gaia mahai gainean gelditu da.

8.- 48/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **48/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **260.391,96** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **48/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 08:30tan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA